

**Bera-Bera lanean jarraitu behar**

Akaba Bera-Bera eskubaloi taldeak Europarako txartela eskuratzeko lehian darrai.

Neska donostiarrak joan den asteburuan

liderraren aurka galdu zuten arren, badute European sartzeko aukera. Ro'Casa eta Vicar Goya izango dira Bera-Beraren arerio zuzenak azken partidetan.



# Gailurretik gero eta gertuago

**Gizonezkoen belar- hockey denboraldia azken txanpan dugu. Donostiako Atletiko bikain ari da. Donostiarrak talde onenekin ari dira nor baino nor eta Liga txapelketa hirugarren postuan amaitzea dute helburu.**

Raul Perez

**A**tletiko sasoi betean dago. Ez da atzo goizeko kontua, ordea. Talde donostiarra 1997-1998 denboraldian igo zen Ohorezko Mailara eta hurrengo denboraldian mailari eutsi zion. Orduetik hona taldeak gorantz egin, eta azken bi urteetan Liga Txapelketa laugarren postuan amaitu du. Aurten ere donostiarrak ondo dabilta eta joan den igandeko garaipenari esker, hirugarren postuan ditugu. Polo taldea da liderra, 28 puntu-rekin, eta Club Egara, 26rekin, bigarren postuan dago sailkatuta. Esan bezala, Atletiko hirugarren postuan da, 21 puntu-rekin, eta postu horri eusteko denboraldi bukaera bitartean lehia estua izango du Athletic Terrasa eta Complutense taldeekin. Datozen egunotan Atletikok ez du atseden hartzeko betarik izango. Asteburu honetan bi partida izango ditu: larunbatean Jolasetan eta igandean, aldiz, Terrasan. Taldeko entrenatzaile Javier Martin Maizen aburuz, hirugarren posturako lehia azken partidara arte izango da: "Ziur aski Terrasa gure arerio zuzena izango da. Asteburu honetan bere zelaian jokatu behar dugu eta aurrerago beraiek Donostiara etorri behar dute".

Aurten Mario Almada argentinarra Atletikora itzuli da. 26 urteko aurrelaria munduko jokalaririk onenetakoa da. Duela bi denboraldi iritsi zen Atletikora Almada, eta iaz Donostiatik kanpora aritu eta gero, gurera itzuli da. Besteak beste, Italian eta Galiziako Apostol taldean aritu den jokariaren ustez, Atletikok asmatu du bai entrenatzailearekin eta baita osatutako taldearekin ere: "entrenatzaile lan ona egiten ari da eta jokariak gazteak diren arren, seriotasun handiz ari dira lanean". Mario Almadaren iritziz, "aurtengo denboraldiko arrakasta bigarren itzulian datza, erregulartasun handia izan baitugu. Iazko laugarren postua hobetzeko moduan gaude".

## Almadaren gidaritzapean

Dena dela, aurrelari argentinarrak errealistak izan behar dutela dio: "Kataluniako taldeak nor baino nor ari dira urtero liga irabazteko asmoz. Hortaz, gero eta jokari hobeak fitxatzen dituzte eta guretzat zaila da euren parean egotea". Dena dela, hockeyzaleek hitzordua dute datorren asteazkenean, maiatzak 1, Bera-Beran Atletikok Complutenserren kontra jokatu bai-tu. Irabaziz gero, eskura izango du amestutako hirugarren postua.

**Iker Fernandez munduko bigarrena**

Olinpiar Jokoe-tan dominik lortu ez bazuen ere, Iker Fernandez donostiarrak Munduko Snowboard Saillapenaren bigarren postuan amaitu du denboraldia.

**Udaberriko lasterketa**

Maiatzaren 19an Donostiako Maratoj Erdiaren bigarren edizioa jokatu da. Lasterkariak 21 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute Donostiako kaleetan zehar.

Parte hartu nahi duenak Apalategi eta Laster kirol dendetara jo dezake izena ematera.

